

UDAL LUDOTEKA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2019. URTEA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauaren arabera, zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik tasak exijitzen eta ezartzen ditu, ordenantza honetan azaltzen den moduan.

2. artikulua.- Ordenantza udal mugarte osoan aplikatuko da.

II.- ZERGA EGITATEA

3. artikulua.- Ludoteka zerbitzua erabiltzea da zerga-egitatea.

III.- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.- Ludoteka zerbitzua eskatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aipatzen direnak, subjektu pasiboak dira, zergadun kontzeptupean.

Adin txikikoaren legezko ordezkariak tasak ordaindu beharko dituzte, ordezeko gisa, ondorio guztietarako.

5. artikulua.- 5 urte baino gehiago eta 12 baino gutxiago dituzten umeei erabil dezakete udal ludoteka zerbitzua.

IV.- ORDAINARAZPENAK ETA HOBARIAK

6. artikulua.- Hobariak

1. Tasaren %75eko hobaria izango dute oinarrizko errenta jasotzen duten familiek.

2. Era berean, 3 kideko familia ugariak %25eko hobaria izango dute tasan eta 4 kide edo gehiagoko familia ugariak %40.

3. Bi hobariak metatu egin daitezke. Hau da, bi egoerak aldi berean gertatzen badira, tasa guztia salbuetsita egongo da.

4. Hobari horiek eskuratu ahal izateko, aipatutako egoerak egiaztatu beharko dira, izen-ematea egiterakoan. Horretarako, oinarrizko errenta jasotzen dela ziurtatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiak egindako agiria aurkeztu beharko da oinarrizko errentaren kasuan, eta, dagokion egiaztagiria, familia ugariaren kasuan.

V. ZERGA KUOTA.

7. artikulua.- Zerbitzuaren prestazioaren iraupenaren arabera, kuota kantitatea finkoa izango da, Ordenantza Fiskal honen eranskinean adierazten denaren arabera.

VI.- SORTZAPENA

8. artikulua.- Udal ludotekan sartu ahal izateko izena ematen denean sortuko dira tasa eta ordaindu beharra.

9. artikulua.- Izen-ematea egin daiteke hurrengo modalitateetako baterako:

- irailaren 1etik hurrengo ekitaldiko abuztuko 31 arte.
- azaroaren 1etik hurrengo ekitaldiko abuztuko 31 arte.
- abenduaren 1etik hurrengo ekitaldiko abuztuko 31 arte.

Izen-emateak Udal Ludotekaren zerbitzuak erabiltzeko eskubidea ematen du aukeratutako modalitatea irauten duen denboran.

10. artikulua.- Zerbitzua jasotzen duenak aldeztatik baxa hartuz gero ez zaio zati proportzionalik itzuliko.

VII.- LIKIDAZIOA ETA SARRERA

11. artikulua.- Izena emateko orduan egingo dira likidazioa eta diru-sarrera; hartara udal kutxetan ordainagiri bat sartuko da.

VIII.- KUDEATZEKO ARAUAK.

12. artikulua.- Izen-ematea horretarako ezarritako aldiaren barruan egingo da, eta horren publizitate egokia egingo da. Halaber, Udal Ludotekaren zerbitzuak erabiltzea ahalbidetuko du 9. artikuluan adierazten diren aldietako batzuetarako. Denbora tarte hau igarota, adin txikikoaren legezko ordezkariak berriro ere inskribatu ahal izango du hurrengo denboraldirako.

13. artikulua.- Izen-ematea adin txikikoaren tutoreak edo legezko ordezkariak egingo du.

IX.-AZKEN XEDAPENA

Ordenantza eta eranskin hauek 2007/07/27 egunean onetsi ziren. Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu egin da 2007/09/21ean. 2007/09/22 egunean sartuko da indarrean eta aldatzea erabaki arte jarraituko du indarrean.

ERANSKINA. TARIFA

Ordaindu beharreko kuota ludoteka zerbitzua ematen hasten den egunaren arabera izango da:

A tarifa: Zerbitzua irailean hasten bada ematen, ordaindu beharreko kuota 40 eurokoa izango da ume bakoitzeko.

B tarifa: Zerbitzua azaroan hasten bada ematen, ordaindu beharreko kuota 34 eurokoa izango da ume bakoitzeko.

C tarifa: Zerbitzua abenduan hasten bada ematen, ordaindu beharreko kuota 30 eurokoa izango da ume bakoitzeko.